

3. Konpromiso Taldearen 1. bilera

2020ko otsailaren 5a

.....

Bileraren xedea

Ilab-aren gobernamendu-ereduaren bigarren bertsioa aurkeztea, bigarren lan-fase honen plana ezagutarazi eta baloratzea eta lau proiektu pilotuetarako lehenengo hurbilketa egitea.

Parte-hartzaileak

Joseba Muxika, Itziar Calvo, Koldobike Uriarte, Goizalde Atxutegi, Nerea Ollokiegi, Itziar Solozabal, Elsa Fuente, Mikel Barturen, Olatz Jimenez, Arrate Arias, Diana Franco, Amaia Agirreolea, Antxon Gallego, Josu Bilbao, Raul Gutierrez, Ione Ardaiz.

Gai-zerrenda

Gobernamendu-ereduaren aurkezpena

Itsaso Larramendik (TIPI) Ilab-aren gobernamendu-ereduaren bigarren bertsioa aurkeztu du, eta lehenengo bertsiotik honakora egindako aldaketak zehaztu ditu.

2020ko lan-planaren aurkezpena

Ane Abarrategik (TIPI) 3. Konpromiso Taldeak uztailera bitartean beteko duen lan-plana aurkeztu du. Galderak egiteko, zalantzak argitzeko eta ekarpenak egiteko tarte zabaldu da.

Proiektu pilotuen aurkezpena

Itsaso Larramendik (TIPI) Ilab-aren lehenengo lau proiektu pilotuak aurkeztu ditu, egitura honi jarraikiz:

- Testuingurua
- Tartean diren agenteak
- Denborazkotasuna
- Lanaren planteamendua
- Transferentzia-elementua

Proiektu pilotuei buruzko hausnarketa

Taldeak analisi-ariketa bat egin du, proiektu pilotuetan sakondu, horiek ulertu eta ekarpenak egiteko.

Elkarriketa egituratzeko, honako eskema honi jarraitu zaio:

- Zalantzak
- Arriskuak
- Aukerak
- Doiketak

Dokumentu honen “Akta” atalean jaso dira ekarpenak.

Akta

Proiektu pilotuei buruzko hausnarketa

Hona hemen 3. Konpromiso Taldeak proiektu pilotuei buruzko hausnarketan egindako ekarpenak.

Idea eta ekarpen orokorrak

Nola eutsi jarraibide zehatzen eta behar bezain irekita dauden jarraibideen arteko orekari, tokiko testuingurura egokitu daitezen? Pilotuen transferentzia-produktuaz ari garenean, etengabe ari gara gauza zehatzei buruz hizketan. Jarraitu beharreko urratsen edo jarraibideen emaitzak baino, hobe dugu kontuan hartzeko fluxu posibleak edo gaiak sortu. Prozesu zehatzak irudikatu ordez, ziurtatu beharreko zenbait baldintza zehaztu beharko genituzke.

Herritarrek parte hartzeko prozesuen ahalmen salutogenikoa

1/ Zalantzak

- Udalerriko osasun-adierazleak eta prozesu partizipatiboak elkarlotzen saiatu gara, prozesuaren ondoriozko osasun-adierazleak prozesu partizipatiboan aplikatzeko bezain eraginkorrak izan daitezen?
 - Erantzuna: Kasualitatea da adierazleak aplikatzeko prozesu partizipatiboan helburua osasun-aktiboen sarea sendotzea izatea. Bai, Hernaniko osasun-aktiboen artean, herritarren parte-hartzearekin zerikusia daukaten ekimenak egon litezke, egonkorrak badira.

2/ Arriskuak

- Baliteke izena bera (hots, salutogenikoa hitza) ez ulertzea.
- Lan ona izan arren, baliteke adierazleak ez erabiltzea, bai konplexuak direlako, bai gehiegi direlako.

3/ Aukerak

- Parte-hartzeak berak osasuna eragiten duela erakustea sekulako aukera da, herritarrak parte hartzera animatzeko arrazoien artera sartzeko modukoa.
- Garrantzitsua da osasun-mahaiak auzoetako prozesu partizipatiboekin lotzea. Hernanin, udalerrian dauden osasun-aktiboak lantzen direnean, aktibo horiek abian diren prozesu partizipatiboekin lotzen badira, izugarria da hortik zer atera daitekeen.

4/ Doiketak

- Adierazleetan denborari buruzko hausnarketa sartzea. Denbora baliabide preziatua da, eta denbora-falta osasunaren kalterako da. Gaur egungo gizartea asko aldatu behar da, pertsonak parte hartzeko aukera izan dezaten. Ahal duenak hartzen du parte. Parte-hartzeak osasuna eranstean dio pertsona guztiek parte hartzeko aukera duten gizarte bati.
- Auzoko/udalerriko prozesu partizipatiboak osasun-aktibotzat hartzea.
- Adierazleen tresnak berak zehaztu beharko luke zein diren adierazle garrantzitsuenak; hau da, kontuan hartu eta bai ala bai aplikatu behar direnak. Interesgarria litzateke emaitza lehenetsi eta soiltzeari, tresna erabiltzea errazagoa izan dadin.
- Adierazleen aurretikoa sozializatzea; hau da, parte-hartzeak osasunean eragiten duela erakusten duten ebidentziak sozializatzea. Politika partizipatiboak balioa emateko modu bat da. Bi transferentzia-elementu egon litezke: ebaluazio-erreminta bera eta parte-hartzeak osasuna zergatik eragiten duen argitzeko azalpena.
- Hizkuntza egokitzea, sozializazioa errazteko.
- Sozializazio-tresna nolakoa izan daitekeen pentsatzea (beharbada, kontakizuna edo mezuak erabil litezke).

Thinking Fadura

1/ Zalantzak

- Proiektuaren ibilbidea markatzen duten eta zalantzak pizten dituzten bi tesi daude:
 - Zein puntura arte uste dugu aztergai duguna prozesu “zaindua” dela, beharbada berori mantentzeaz eta jarraitutasuna emateaz arduratuko diren pertsonak kontuan hartu ez badira?
 - Ohikoa da prozesu partizipatibo bat egitea eta gero, irten den horri erantzute aldera, administrazioa nola egokitzen den ikustea. Politikak eta proiektu publikoak pentsatzen eta kudeatzen direnean, berritzaileagoa litzateke herritarrek beste toki batzuetan kokatzea, ondoren, politika eta proiektu publiko horiek proiektu zehatzen bidez garatzen direnean, klasikoaz bestelako ibilbide bat egin dezaten.
 - Erantzuna: Laborategiaren asmoa da administrazio publikoko pertsona horiek diseinu-fasera sartzea, gero doiketarik egin behar ez dadin. Zer-nolako atxikipen-maila eduki behar den eta aintzat nor hartu behar den neurtzea da kontua.

2/ Arriskuak

- Administrazioaren barrukoegia izatea, oso herritarra ez izatea.
- Izena oso mugatuta dago, eta proiektu zabalago bati egiten dio erreferentzia. Piloturako izen aproposago bat sor liteke, pilotajeak zehazki jorratuko duen gaia isla dezan.

3/ Aukerak

- Aldaketaren aurrean dauden erresistentzien gaia ukitzea.
- Administrazioak lan egiteko duen moduan aldaketak txertatzeko aukera da. Aldaketa horiek eskatzen dituzten ahotsak zenbat eta anitzagoak izan, orduan eta aukera gehiago egongo da lan egiteko modu arinagoak, hurbilagoak eta abar sortzeko.
- Emaitzak erakundetzeko baliagarria da, Ilab-aren mugarrietako bat izaki hori.
- Gaia oso egokia da. Prozesu zoragarriak egin arren, gainerako administrazioek atea ireki ezean, ez dago etorkizunik.

4/ Doiketak

Aurrekontu partizipatiboen ebaluazio partaidea

1/ Zalantzak

2/ Arriskuak

3/ Aukerak

- 2. fasea (hots, herritarrek aurrekontu partizipatiboen inguruan duten iritzia bertatik bertara ezagutzea) aukera paregabea da, normalean ez delako erkaketa hori sakon egiten.
- Aurrekontu partizipatiboak tresna eraginkorragoa izan daitezen udal batek zer egin dezakeen ikustea, eta, aldi berean, aurrekontu partizipatiboak parte hartzeko dauzkagun eskumenetan zer-nolako inpaktua izaten ari diren ikustea.
- Aurrekontu partizipatiboen eta askotariko eremuetan egiten ari diren prozesu partizipatiboen arteko lotura zein den jakitea, bikoizketarik ez egiteko eta eraginkorrak izateko.
- Herritarren proposamenen kudeaketa administrazio-kudeaketan nola txertatzen den eta kudeaketa horrek beste arlo batzuetan eta barne-funtzionamenduan zer-nolako eragina duen ikustea.

4/ Doiketak

- Herritarrekin kontrastatzeko fasean, aurrekontu partizipatiboetan parte hartzen ez duten pertsonekin kontrastatzeko aukera egotea, haien arrazoiak ere ezagutzeko.

Migratzaileen parte-hartzea areagotzeko laborategia

1/ Zalantzak

- Proiektua diseinatzeko orduan migratzailek egon da? Proiektua berregituratzeko gaitasuna dute?
 - Erantzuna: Ez, diseinuan Udalaren Parte-hartzeko Sailak eta Immigrazio Sailak parte hartu dute. Koordinazio-taldearekin kontrastatu da, eta, orain, proiektuari testuingurua ematen ari dira. Migratzaileak agente izango dira prozesuan, baina ez dute diseinuan parte hartu.
- Aldi berean, ez-migratzaileok galdera bat egin behar diogu geure buruari: zer ez dugu egin behar, migratzaileek parte har dezaten? Ohikoa da botere-harremanak eta parte hartzeko eremu oso itxiak sortzea.

2/ Arriskuak

- Oso zaila da migratzaileek parte hartzea, beste migratzaile batzuekin ez bada.

3/ Aukerak

- Normalean parte hartzetik kanpo geratzen direnen gainean jartzen du fokua (hots, oztopoak izaten dituztenengan), eta, zentzu horretan, hemen aterako den emaitza beste kolektibo batzuetan aplikatu ahalko da agian, edo sakontzen jarraitzeko abiapuntua izango da.
- Gure lurraldean, nazioarteko immigrazioa fenomeno nahiko berria da, eta, zentzu horretan, orain hasten ari denez, interesgarria da lantzen hastea.
- Gizarte-kohesioa areagotzea.

4/ Doiketak

- Emaitza transferitu ahalko da, baldin eta emaitza behar bezain zehatza bada; hots, praktikoa eta aplikagarria bada. Dekalogo bat baino interesgarriagoa litzateke gako eta ekintza batzuk ematea.
- Ondorioak ateratzean, migratzaileek parte hartu beharko lukete. Hori bera erronka bat izango da.
- Agian, ez lirateke urratsak zehaztu beharko, baizik eta kontuan hartzeko patroiak/fluxuak/baldintzak/printzipioak sortu behar lirateke. Praktikoa izan dadila, baina ez dogmatikoa.